Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

# DONOSTIAKO UDALA

## Gobernu Onaren Kodea

### ATARIKOA

Donostiako Udal Gobernua osatzen dugun ordezkariok konpromisoa hartzen dugu jarraian aipatutako Gobernu Onaren irizpideen arabera aritzeko gure jarduera politiko instituzionalean.

Herritarrek gertuen dituzten erakunde publikoak Udalak direnez, hauen kudeaketa etika publiko komunean oinarritzea, ustelkeria kasuak erabat baztertzea eta praktika onak sustatzea da gure konpromisoa, besteak beste hori delako herritarren artean ere kultura zibiko sendoa bermatzeko modurik eraginkorrena.

Honako Kode honek bere baitan jasotzen ditu CLRACE Europako Batzordeak (The Congres of Local and Regional Authorities of the Council of Europe) 1999ko Ekainaren 17an onartutako aholku multzoa "*European Code of Conduct for the Political Integrity of Local and Regional Elected Representatives*", eta gure errealitateari erantzuten dioten zenbait irizpide gehitzen dizkio.

Eremu publikoan zein pribatuan arduratsuagoak izan asmoz, etika orokor bat garatzen da Kode honetan, erakunde publikoek eduki behar dituzten baloreak sustatuz eta egiten dugunaren ondorioak aztertuz. Jarraian zerrendatzen diren irizpide hauen helburua da Udal Gobernuko kideon jarduna zuzena izatea, arduratsua, jendartearen zerbitzura dagoena, gardena, eraginkorra eta funtzio

# AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA / SAN SEBASTIAN

## Código de Buen Gobierno

### PRESENTACION

Cada una de las personas representantes que componemos el Gobierno Municipal de Donostia / San Sebastián adoptamos el compromiso de actuar en el desempeño de nuestra actuación política municipal siempre acorde a los principios del Buen Gobierno que aquí presentamos.

Para conseguir una mayor cultura cívica en nuestra sociedad es de especial relevancia que la gestión de los Ayuntamientos, que son las administraciones públicas más cercanas, se implemente desde una ética pública y común, desterrando cualquier caso de corrupción y promocionando las buenas prácticas.

Este Código recoge el cuerpo de recomendaciones que la Comisión Europea plantea en su "*European Code of Conduct for the Political Integrity of Local and Regional Elected Representatives*", aprobado en el Congreso de Poderes Locales y Regionales del Consejo de Europa (The Congres of Local and Regional Authorities of the Council of Europe) el 17 de Junio de 1999, al cual hemos añadido con algunos criterios propios.

En este Código se desarrolla una ética general con el objetivo de fomentar prácticas más responsables tanto en el ámbito público como privado, fomentando los valores que deben tener las administraciones públicas y analizando las consecuencias de las decisiones del Gobierno. Precisamente, el propósito de los criterios que vienen a continuación es garantizar que la conducta de cada

publikoari modu erabatekoan zor zaiona.

miembro del Gobierno Municipal sea justa, responsable, al servicio de la ciudadanía, transparente, eficiente y debida enteramente a la función pública.

**TOKIKO GOBERNU ONAREN KODEKO IRIZPIDEAK**

**PRINCIPIOS DEL CÓDIGO DE BUEN GOBIERNO LOCAL**

Udal ordezkari garenez gure funtzio publiko eta betebeharrak Kode honetan jasotzen diren irizpide, printzipio etiko eta jarreren arabera beteko ditugu.

Siendo como somos representantes municipales cumpliremos el desempeño de la función pública y de nuestras obligaciones en coherencia con los criterios, principios éticos y comportamientos que se recogen en este código.

Udal ordezkari garen neurrian bultzatu egingo ditugu kudeaketa gardena eta eraginkorra, demokrazia partehartzailea, justizia soziala eta karguaz onurarik ez ateratzea.

En la medida que somos representantes municipales promoveremos de manera activa una gestión transparente y eficiente, la democracia participativa, la justicia social y garantizaremos que nadie se lucre por razón de su cargo.

**Ondarea**

**Bienes**

Donostiarren udal ordezkari izanagatik ez dugu erakundea, ez gure, ez gure ezagun zein senitartekoen onurarako erabiliko.

Como representantes municipales que somos no utilizaremos la institución en beneficio nuestro o de nuestros conocidos o familiares.

Donostiako udal ordezkariok ez dugu inorengandik opariririk onartuko, izan pertsona zein erakundeena, kortesiazko keinu soil izatetik harago badoaz. Irizpide berak balio du Gobernuko aholkularientzat.

Tampoco aceptaremos regalos que sobrepasen los usos y costumbres de la simple cortesía por parte de entidades o personas. Aplicaremos este mismo principio para todas las personas asesoras del Gobierno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián.

Ondarearen zinpeko adierazpena egingo dugu balizko aberastea kontrolatzeko eta ekiditeko.

Haremos una declaración jurada del patrimonio personal para controlar y evitar cualquier enriquecimiento personal.

Donostiako Udal Gobernua osatzen dugunez, gure karguarekin bateraezinak diren edo izan litezkeen eta etekin ekonomikoak ematen dizkiguten edo eman diezazkiguketen ekimen pribatuak jasotzen dituen adierazpena sinatuko dugu.

Formularemos una declaración sobre causas de posible incompatibilidad y sobre cualquier actividad que nos proporcione o nos pueda proporcionar ingresos económicos.

Legegintzaldian zehar egiten ditugun ondasun edo jarduera aldaketak Ondasun eta Interesen Erregistroan izendatuko

Se trasladarán al Registro de bienes e intereses los cambios patrimoniales o de actividades que tengan lugar a lo largo de

ditugu, gertatu eta gehienera lau hilabeteko epean.

Udal hautetsi garenez gure irabaziak publiko egingo ditugu herritarrek ezagutu ahal izan ditzaten.

Irabaziak bere osotasunean argitaratuko ditugu, bai udal ordezkarienak bai zuzendarienak bai konfiantzazko karguenak ere. Gure ordezkaritzagatik jaso ditzakegun bestelako ordainak ere publiko egingo ditugu.

Udal ordezkarien ordainsaria eta konfiantzazko karguena dedikazioaren araberakoa izango da, kontuan izanik Donostiaren tamaina, kudeatu beharreko aurrekontua, ardura, Udalaren egoera finantzieroa eta herrialdearen egoera sozioekonomikoa.

Gobernuko kideek erabateko dedikazioa eskainiko diote Udalari, lanaldi osokoa eta beste jarduerekin bateraezina dena.

Udal ordezkari gisa Udaleko gastu politika soila eta zuhurra bermatuko dugu.

**Justizia soziala**

Proposatzen den gizarte eraldaketa aurrera eramango duen garapen eredu integral batean oinarrituz, helburu honekin bateragarriak izango diren neurri politikoak martxan jarriko ditugu. Eta egindako lanaren barne kontrolerako bitartekoak jarriko ditugu, zeinak pertsonen oinarrizko beharrak asebetetzea helburu duten bitarteko eraginkorrak izango diren.

Gizarteratzearen alde lan egingo dugu, bai eta hiri orekaren alde Donostia osatzen duten auzo eta herrien arteko hurbilketa bultzatzeko.

la legislatura, en el plazo máximo de cuatro meses desde que se produzcan.

Las remuneraciones de los cargos electos serán publicadas para conocimiento de la ciudadanía.

Publicaremos las retribuciones íntegras, así como las compensaciones económicas que percibamos por la representación desempeñada con motivo de nuestro cargo, de los cargos públicos electos, de los directivos y personal de confianza de las instituciones.

El salario de los cargos electos, así como los cargos de designación directa, se establecerá en función de la dedicación, teniendo en cuenta el tamaño de la ciudad, el presupuesto a gestionar, la responsabilidad adquirida, la situación financiera del Ayuntamiento y el contexto socioeconómico del territorio.

Como miembros del Gobierno Municipal tendremos una dedicación exclusiva, a tiempo completo, incompatible con otro tipo de actividades económicas o lucrativas.

Siendo como somos representantes municipales actuaremos de acuerdo con los criterios de austeridad y prudencia de nuestra política de gastos.

**Justicia social**

Propondremos medidas políticas que sean compatibles con la transformación social a la que aspiramos en base a un modelo de desarrollo integral. Asimismo, pondremos mecanismo de control del trabajo realizado que aseguren la satisfacción de las necesidades más básicas de la ciudadanía.

Trabajaremos a favor de la inclusión social y el equilibrio territorial, en particular entre el Centro y los Barrios y Pueblos que conforman Donostia / San Sebastián.

Udalak zein enpresa publikoek egiten dituzten kontratazioetan Gobernu Batzordeak 2012ko Irailaren 14an onartutako klausula sozialak aplika daitezen bermatuko dugu.

Gizonezko eta emakumezkoen arteko desberdintasunak gainditzeak, irtenbide partzialetatik eta neurri zehatzetatik aldentzea dakar, emakumeen eskubide guztien alde lan eginaz, gaur eguneko sistema gaindituz eta genero parekidetasuna bultzatuz.

Hiri politikaren lehentasunezko helburuetan sartuko dugu aldaketa klimatikoaren aurka egitea, garapen jasangarri eta ingurumenarekiko orekatua eta hiriaren antolaketa arrazionala.

**Bizikidetza eta normalkuntza politikoa**

Bakean, segurtasunean eta nazioarteko zuzenbidean, giza eskubideen eta funtsezko askatasunetan oinarritutako bizikidetza bermatuko da, aniztasunetik, maila pertsonalean zein kolektiboan, garapen justu eta zuzen baten alde lan eginaz.

Soilik bide eta bitarteko politiko, baketsu eta demokratikoekin jarduteko konpromisoa tinkoa da. Honek, eskura ditugun bitarteko legitimo guztien bidez, edozein giza eskubideren aurka burutu daitekeen inolako eraso edo bortxazko ekintza edo jardueraren kontra, eta helburu politikoak lortzeko biolentzia baztertzea suposatzen du.

Elkarrizketa, negoziazioa eta akordioa da lanerako metodoa. Hori posible izan dadin gure herriko gatazka politikoaren arrazoiak aztertuko dira, interpretazioen arteko desadostasunak, interes bateragarriak, oztopoak, eta faktore horiek guztiak kontuan izanik, akordioa erraztu dezaketen prozesuak jarriko dira martxan.

Garantizaremos que en las contrataciones que realicen el Ayuntamiento y sus empresas públicas se cumplan las cláusulas sociales aprobadas por la Junta del Gobierno Local el 14 de Septiembre de 2012.

La superación de las diferencias entre hombres y mujeres supone alejarse de las soluciones parciales y medidas concretas, trabajando por todos los derechos de las mujeres, superando el sistema actual y promoviendo la igualdad de género.

Incluiremos entre los principales objetivos de las políticas locales la lucha contra el cambio climático, el desarrollo sostenible, la protección del medio ambiente y la ordenación racional del territorio.

**Convivencia y normalización política**

Como Gobierno garantizaremos la convivencia basada en la paz, la seguridad y el derecho internacional, los derechos humanos y las libertades fundamentales, desde la diversidad, tanto personal como colectivas, trabajando por un desarrollo justo y sostenible.

Adoptamos el firme compromiso de que nuestra actuación política se desarrollará exclusivamente por las vías políticas pacíficas y democráticas. Esto supone que actuaremos, con todos los medios legítimos a nuestro alcance, en contra de cualquier vulneración de los derechos humanos o contra cualquier ataque o acción violenta ejercida para lograr objetivos políticos.

Nuestro método de trabajo es el diálogo, la negociación y el acuerdo. Para que eso sea posible trataremos de resolver las causas del conflicto político, los desacuerdos entre las diferentes interpretaciones, los intereses que puedan confluir, los obstáculos, y tomando en cuenta todos esos factores activaremos procesos que puedan facilitar los acuerdos.

**Aniztasun politiko eta mediatikoa**

Talde Politikoek egoitza izango dute Udalean, eta bilerak egiteko edo bisitak hartzeko gela bat, Gobernuak euren esku jarriko dituelarik giza bitartekoak eta materialak, aurrekontuak ahalbidetzen duen neurrian.

Komunikazio eta informazio medio lokalen aniztasuna bermatuko da, oposizioko kideei eta herri eragileei agerraldiak egiteko espazio bat eskainiaz.

**Pluralidad política y mediática**

Los diversos Grupos Políticos dispondrán en dependencias municipales de un despacho o local para reunirse y recibir visitas, poniendo el Gobierno a su disposición los medios materiales y humanos que permita el Presupuesto.

Se garantizará la pluralidad en los medios locales de información y comunicación favoreciendo un espacio de participación para la oposición y para los agentes sociales.

**Eraginkortasuna**

Gure jarduera politikoak eraginkorrak izan daitezen saiatuko gara, Donostia gaurkotzeko balio dutenak eta herritarren zerbitzura bideratzen direnak.

Elkarrizketa iraunkorra izango dugu gizarte eragileekin, auzo elkarteetako ordezkariekin, administrazioko langileekin eta sindikatuekin, Udalak ematen dituen zerbitzuak modu eraginkorrenean emateko konpromisoa indartzeko.

**Eficiencia en la gestión**

Regirán nuestras actuaciones la eficiencia, la modernización de la Ciudad, y el buen servicio a la ciudadanía.

Promoveremos el diálogo constante con los sectores sociales, agentes relevantes, representantes de las asociaciones vecinales, trabajadores de la administración y organizaciones sindicales, incentivando el compromiso con la eficiencia en la prestación de los servicios públicos locales.

**Gardentasuna**

Udal ordezkari garenez gure jardun politikoa erabat publikoa izango da, eta kudeaketa guztiz gardena.

Herritarren eta Gobernuaren arteko informazio eskubidea bermatuko dugu, herritarren eta Sail bakoitzaren artekoa ere bai, informazio teknologiak eskaintzen dituzten aukerak baliatuz eta hauen erabilpena sustatuz.

Iradokizunak eta Kexak egiteko mekanismoak indartuko ditugu, gardentasuna, partehartzea eta herritarrekin komunikazioa hobetzeko

**Transparencia**

Siendo como somos representantes municipales nuestra actuación política será siempre pública y la gestión totalmente transparente.

Aseguraremos el derecho a la información entre la ciudadanía y el Gobierno, así como entre la ciudadanía y cada departamento, aprovechando al máximo las tecnologías de la información, a cuya utilización se contribuirá decididamente.

Reforzaremos los mecanismos para la formulación de Sugerencias y Reclamaciones como medio de profundizar en la transparencia, la participación y la comunicación con la ciudadanía.

Udal Gobernuak oposizioko kideekin bilera sarriak egiten saiatuko da, gobernu ekimen eta proiektuen berri emateko, akordioak errazteko eta Toki-Administrazioa modu anitzagoan kudeatzen saiatzeko.

El Gobierno Local mantendrá reuniones periódicas con la oposición, para dar cuenta de las iniciativas y proyectos, así como para facilitar los acuerdos y la deseable gobernabilidad de la Administración Local.

Arau orokor gisa ohiko Udalbatzarrak hilean behin egingo dira.

Como norma general se realizarán Plenos ordinarios cada mes.

Urtean behin Hiriaren Egoerari buruzko eztabaida burutuko da.

Se favorecerá la celebración anual de un debate sobre el Estado del Municipio.

Lortzen diren akordioen baitan, oposizioko kideak Udal Elkarteen eta Enpresa Publiko Munizipalen Administrazio Kontseiluetako eta Fundazio Lokaletako Patronatuetako kide izango dira.

En virtud de los acuerdos adoptados, se incorporarán miembros de la oposición a los Consejos de Administración de las Sociedades y Empresas Públicas Municipales, y a los Patronatos de las Fundaciones Locales.

Udalak, Udal erakundeek eta kapital munizipala duten enpresek egiten dituzten kontratazioak gardentasun eta legezkotasun printzipioen arabera egiten direla ziurtatzeko Kontratazio Publikoen Jarraipen eta Kontrol Komisioak indartuko ditugu, esaterako oposizioko kideei bertan egoteko aukera emanaz.

Reforzaremos las Comisiones de Control y Seguimiento en la contratación pública, por ejemplo permitiendo la entrada de los miembros de la oposición, para garantizar que tanto la contratación realizada por el Ayuntamiento como por sus organismos autónomos y empresas de capital municipal se lleve a efecto bajo los principios de transparencia y legalidad.

Enpresa publikoek edo kapital publikoa dutenek Enpresa Ardura Sozialean eta Kode honetan jasotzen diren kudeaketa etikoaren kodea eta estrategia irizpideak jarrai ditzaten saiatuko gara.

Las empresas públicas o con participación pública aplicarán en su gestión códigos éticos de conducta y criterios de estrategia de Responsabilidad Social Empresarial, así como los que se recogen en este documento.

Udaleko laguntzak jasotzeko prozedurak xehetasunez argitaratuko dira, jasotzailea eta zenbatekoak jarrita, eskatzaileen izaera juridikoa eta haien mendeko taldeen inguruko erabateko gardentasunaz.

Se publicará detalladamente el procedimiento de concesión de subvenciones y ayudas, con determinación de la cuantía y del beneficiario, y con máximo nivel de transparencia acerca de las personas jurídicas solicitantes y los grupos de las que dependan.

**Herri Partaidetza**

Herritarrei ahotsa eta eragin-ahalmena emango zaie, gizarte zibilaren protagonismoa indartuz, gobernagarritasuna hobetuz eta instituzioa demokratizatuz, beti ere politika

**Participación ciudadana**

Se otorgará cada vez más voz y poder a la ciudadanía, reforzando el protagonismo de la sociedad civil, mejorando la gobernabilidad y democratizando la institución, siempre con el propósito de

publikoetan herritarren eragina handitzeko helburua izanik.

Demokrazia partehartzailea eta demokrazia ordezkatzailea ez dira kontrajarritako bi aukera, eta biak garatzeko konpromisoa hartzen dugu. Donostia mailan demokrazia zuzen ariketak bultzatzen hasteko konpromisoa ere hartzen dugu. Gizarte mugimendu sendoa eta ondo antolatutako gizarte partehartzailea ezinbestekoak dira benetako demokrazia lokala garatzeko.

Donostia harremanduna eta elkarrizketa zalea bultzatuko dugu, herritarrak inplikatuaz eta herritarrei zein eragile ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalei galdegiteko bideak ireki eta bitartekoak jarrita.

Partehartzeko bitarteko konkretuak jarriko ditugu, proiektu zehatzen inguruan lan taldeak eratuko ditugu, hausnarketa eta ekintza kolektiborako ekimen partehartzaileak sortuko ditugu, aurrekontu partehartzaileak prestatzeko moduak jarriko ditugu, eta Aholku Kontseilu Sektorialak hobetuko ditugu.

Partehartze Sailetik formazio ikastaroak emango ditugu elkartegintza eta auzolana egoki egitea sustatzeko.

Gizarte kolektibo bakoitzarentzat partehartze formula berezituak sortuko ditugu, eta, inklusioa oinarri, desberdin landuaz ordezkaritza txikiena duten sektoreak, hala nola, haurrak, gazteak, jatorri desberdinetako kideak edo adinekoak

**Transfugismoa**

Hautatua suertatzen den pertsonaren kargua ez da norberarena. Hautatutako pertsonak, bai bere borondatez edo baita beste arrazoiren batengatik ere, hautatua izan den kargua utzi nahi badu, ez du mantendu ahalko, beste talderen batean

incrementar la presencia y la capacidad de influencia de la ciudadanía.

La democracia representativa y la democracia participativa no son alternativas contrapuestas. Los miembros de este Gobierno nos comprometemos a promover ambas. Asimismo, adoptamos el compromiso de iniciar ejercicios de democracia directa. Un movimiento asociativo sólido y una sociedad participativa y bien estructurada resultan imprescindibles para la profundización de la democracia local.

Fomentaremos una Donostia / San Sebastián relacional, dialogante, implicando y consultando a la ciudadanía y a los diferentes agentes económicos, sociales y culturales, facilitando los cauces y los medios necesarios.

Crearemos instrumentos concretos, grupos de trabajo en torno a proyectos determinados, iniciativas de participación ciudadana, cauces para la preparación de los Presupuestos Participativos, y trataremos de mejorar los Consejos Asesores Sectoriales.

Desde el Departamento de Participación implementaremos planes de formación adecuados para fomentar el asociacionismo y el voluntariado cívico.

Articularemos fórmulas de participación respecto a diferentes colectivos, y en aras de promover la inclusión, prestando atención diferenciada a la participación de los sectores menos representados como la infancia, la juventud, la inmigración o las personas mayores.

**Transfugismo**

El cargo de la persona elegida no es de cada cual. Si la persona elegida decide dejar el cargo, tanto por voluntad propia como por otro tipo de razones, no podrá seguir ostentando la representatividad popular en otro grupo. La decisión de

kokatuz. Alde egiteko erabakiak, kargua zein instituzioa uzteko erabakia dakar berarekin.

marcharse implica dejar el cargo y la institución.